



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2019KO MARTXOAREN 21EKO BILERAREN AKTA.

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Berezia.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2019.03.21.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Udaletxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Jose Javier Mitxelena Ordoki jn.
Juan Maria Gonzalez Burguete jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Mentxu Peña Lizarazu and.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onspena.
- 2.- Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa: hasierako onspena.
- 3.-Simon Iturria Alzuri jauna: oihan aprobetxamendua egiteko eskaera.
- 4.-Jesus M. Goizueta Biurrarena jauna: oihan aprobetxamendua egiteko eskaera.
- 5.-Ametxoko alderdiko herriko oihan enkantea.
- 6.-Karrika Nagusia zabalteko proiektuaren onspena.
- 7.-Goienburu karrika moldatzeko proiektuaren onspena.
- 8.- Alkatearen ebazpenak.
- 9.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

Ikusirik 2019ko martxoaren 4an egindako bileraren akta, aho batez, ONARTU DUTE.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik Arantzako Arau Subsidiarioen eraikuntzen ordenantza eta araudi orokorra aldatzeko proposamena.

Ikusirik horren inguruan prestatutako dokumentazioa.

Kontuan hartuz aldaketaren edukia xehekatua dela.

Ikusirik 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailearen 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena 72. artikulua eta honen edukia.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

- 1) Hasiera batean onestea Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa xehekatua.
- 2) Espedientea hilabete batez jendaurrean paratzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean argitaraturiko egunkarietan jarritako ediktuen bidez.

3.- SIMON ITURRIA ALZURI JAUNA: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.

Ikusirik Simon Iturria Alzuri jaunak aurkeztutako eskaera, Sauzar alderdian dauden zuhaitzen (abetoa) aprobetxamendua egiteko (entresaka), 1. poligonoko 273. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Simon Iturria Alzuri jaunari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.
- 4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.
- 5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

4.- JESUS M. GOIZUETA BIURRARENA JAUNA: OIHAN APROBETXAMENDUA ESKAERA.

Ikusirik Jesus M. Goizueta Biurrarena jaunak aurkeztutako eskaera, Trapazelai alderdian dauden zuhaitzen (arkaziak) aprobetxamendua egiteko (entresaka), 4. poligonoko 184., 52. eta 138. lur zatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Jesus M. Goizueta Biurrarena jaunari eskatutako oihan aprobetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, aprobetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaerak Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea aprobetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

5.-AMETXOKO ALDERDIKO HERRIKO OIHAN ENKANTEA.

Ingurune Naturalaren Zerbitzuko Zuzendariaren 2019ko martxoaren 1eko 113. Ebazpenaren bidez, Arantzako Udaleko mendiko aprobetxamendu eta hobekuntzen plana onartu du eta, konkretuki, Ametxoko, Pagolleta eta Axtalko alderdietan, 8.108 zuhaitz (radiata pinua eta akaziak), 6.048, 06 metro kubiko enbor tiki egur egiten dutenak. PEFC oihan ziurtagiria dute. Hasierako prezioa: 176.000,00 euro (BEZa kanpo).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aipatutako oihan probetxamendua egitea onartzea, enkantea eta plegu itxiaren bidez, eta hasierako prezioa 176.000,00 eurokoa izanik.

2) Nafarroako Gobernuak baldintza teknikoaren pleguarekin batera, probetxamenduaren salmenta arautuko duen baldintza ekonomiko administratiboaren plegua onartzea.

3) Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontratazio Atarian iragarria argitaratzea.

4) Enkantearen berri ondorengo enpresei igortzea: Embalajes Martinez S.L., Maderas Larreta, Central Forestal S.A., Etxebeste Anaiak, Maderas Santesteban, Donato Larretxea eta Pako Altzuri S.L.

6.-KARRIKA NAGUSIA ZABALTZEKO PROIEKTUAREN ONESPENA.

Udal honek, 2019ko otsailaren 4an egindako bileran erabaki zuen Karrika Nagusia kalearen zati bat zabaltzeko egindako proiektua, Igor Lopez de Uralde Gutierrez arkitektoak sinatua, ukitzen dituen jabe guztiei eta ingurukoei jakinaraztea, otsailaren 18a arte epea emanek ekarpenak eta alegazioak aurkezteko edota aldatetarako eskatzeko.

Ikusirik Karrika Nagusia zabaltzeko beharra, dauden 7 etxeetara sarrera hobetzeko, kontuan hartuz gaur egungo kalearen zabalera.

Kontuan hartuz ere kaleak gutxienez 2,8 metro izateko egin behar diren lanak, mantenduz pabimentazio eta sareak eta moldatzeko zati berriak.

Kontuan hartuz Udalak etxeen zatia hartzea beharrezkoa dela.

Ikusirik epearen barne Isabel Andueza Agara andreak aurkeztutako alegazioa.

Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Lege eta Erregelamenduaren jarraituz.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea jarraituz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Behin betiko onartzea "KARRIKA NAGUSIKO ZATI BATEN ZABALTZEA" lanei dagokion proiektua, eta bai proiektuak ukitzen dituen ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda ere. Horrek berekin dakarrela erabilera publikoaren eta okupatu behar diren deklarazioa.

2) Aipatutako proiektuko lanak egiteko premia deklaratzeko eta horrek berarekin dakar haren barrinean sartzen diren obren onura publikoaren deklarazioa, desjabetzea egin ahal izateko.

Herriko Plaza, 7

31790 ARANTZA (Nafarroa)

☎ 948 634 005

📠 948 928 919

arantza.udala@arantza.eus

www.arantza.eus



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

3) Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egun balioduneko epean, espedienteak ukitzen dituela uste duten pertsonak agertu eta bidezko juzgatzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

4) Erabaki hau argitaratzea Udalaren iragarki-taulan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean, bai eta Nafarroako Foru Komunitatean gehien zabaltzen diren egunkarietan ere, ukitutakoei banan-banan jakinaraziko zaie, alegazioak aurkez ditzaten beraien eskubideen alde.

5) Orobat, erabaki hau jakinaraztea ondasunen eta eskubideen behin-behineko zerrendan sartutako lurzatiaren titularrei. Eranskinean heldu da zerrenda hori.

6) Ondasunen deskribapen material eta legezkoan sortutako akatsak zuzentzearen ondorioetarako soilik, onartzea edozein pertsona natural edo juridiko ager daitekeela, bidezkoak iruditzen zaizkion aurrekariak edo erreferentziak alegatzeko.

7) Akordio hau jabe guztiei jakinaraztea.

8) Obrak esleitzeko ondorengo enpresei gonbidapenak bidaltzea: I.M.Arrixko igeltseritza S.L., Erlaitz eraikuntzak, Peio Aginaga Mazizior eta Iñaki Taberna Iturria, proposamenak aurkezteko epea apirilaren 12a ezarriz eta lanak egiteko epea ekainaren 7a.

UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

1.-POLIGONOA: 5

LURZATIA: 896

JABEA: M. JESUS AGARA LAZCANO

ERABILERA: HIRI LURRA

AZALERA: 225,60 M2

OKUPATZEKO AZALERA: 2,40 M2.

2.-POLIGONOA: 5

LURZATIA: 893

JABEA: JOSEFA LUIS ZAPIRAIN SORONDO

ERABILERA: HIRI LURRA

AZALERA: 259,83

OKUPATZEKO AZALERA: 6,65 M2.

3.-POLIGONOA: 5

LURZATIA: 905

JABEA: JOSEFA LUIS ZAPIRAIN SORONDO

ERABILERA: HIRI LURRA

AZALERA: 198,74 M2

OKUPATZEKO AZALERA: 51,58 M2.

4.-POLIGONOA: 5

LURZATIA: 895

JABEA: BEGOÑA ARAMBURU ECHEPETELECUCU

JUAN GOÑI ELIZONDO



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

FELIPE ECHEVERRIA MICHELENA/JUANA MADARIAGA
MACHICOTE

ERABILERA: HIRI LURRA
AZALERA: 1.022,44 M2
OKUPATZEKO AZALERA: 2,69 M2.

5.-POLIGONOA: 5
LURZATIA: 907
JABEA: CLARA AGARA LAZCANO
ERABILERA: HIRI LURRA
AZALERA: 793,11
OKUPATZEKO AZALERA: 6,32 M2.

7.-GOIENBURU KARRIKA MOLDATZEKO PROIEKTUAREN ONESPENA.

Udal honek, 2019ko otsailaren 4an egindako bileran erabaki zuen, Goienburu karrika moldatzeko egindako proiektuaren kopia (Beñat Aleman Ollo arkitekto teknikoak sinatua) inguruko jabe guztiei jakinaraztea, otsailaren 18a arte epea emanek ekarpenak eta alegazioak aurkezteko edota aldaketak eskatzeko.

Epean barne Jose Antonio Bereau Macicior jaunak aurkeztu du bere alegazioa, etxebizitzako kotak mantentzeko eskatuz.

Kontuan hartuz proiektuaren arabera, bere etxearen kotak mantentzen direla.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Antonio Bereau Macicior jaunak adieraztea obra proiektu teknikoaren arabera eginen dela, bere etxeko espaloien kotak mantenduz.

2) Obrak esleitzeko ondorengo enpresei gonbidapenak bidaltzea: I.M.Arrixko igeltseritza S.L., Erlaitz eraikuntzak, Peio Aginaga Mazizior eta Iñaki Taberna Iturria, proposamenak aurkezteko epea apirilaren 12a ezarriz eta lanak egiteko epea ekainaren 7a.

8.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bilera geroztik emandako ebazpenen berri eman du: 2019ko 27. ebazpenetik 40. ebazpena arte.

9.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena.

